

INFORMAZIO ORRIA. LAGUN EGITEKO ANIMALIAK BABESTEKO ETA DEFENDATZEKO ELKARTEEN ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN ERREGISTROA

1.- ERREGISTROAREN XEDEA ETA ATALAK

Erregistroaren helburua da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta animaliak babesteko eta defendatzeko erakundeen arteko ezagutza, informazioa eta lankidetzaren hobetzea. Horren bidez bultzatu nahi dira lagun egiteko animalien babesaren eta defentsaren arloko dibulgazioa eta prestakuntza, animaliak arduraz edukitzea, abandonuaren aurkako borroka eta adopzioa.

Erregistroak bi atal ditu: Lehen atalean, lagun egiteko animaliak babesteko eta defendatzeko elkarteak jasoko dira, eta Bigarren atalean, erakunde laguntzaileak.

2.- ERAKUNDE LAGUNTZAILE GISA INSKRIBATZEAREN ONDORIOAK

2.1. Erakunde laguntzaileztat aitortzearen ondoriozko ahalmenak:

- «Nafarroako Gobernuaren erakunde laguntzailea» adierazpena erabiltzea era guztietako dokumentuetan, izenaren edo izendapenaren ondoren.
- Hitzarmenak adostea toki erakundeekin edo Nafarroako Gobernuarekin, animaliak babesteko lanak garatzeko. Hitzarmenetan, animaliak babesteko eta defendatzeko honako jarduera hauek aurreikus daitezke:
 - Abandonatutako, galdutako eta jabeek emandako animaliak biltzea
 - Beren instalazioak edo hirugarrenentzat kudeatzen dituztenak erabiltzea abandonatutako, galdutako, lagutako edo administrazioak konfiskatutako animaliak hartzeko eta mantentzeko, bai eta osasun arrazoiengatik isolatuta egon behar dutenak edukitzeko ere
 - Abandonatutako animalien adopzioa kudeatzea
 - Katu koloniak kudeatzea
 - 19/2019 Foru Legearen espiritua eta edukia zabaltzea
 - Beste jardura batzuk, alderdiek adosten dituztenak eta 19/2019 Foru Legearen helburuak lortzen laguntzen dutenak
- Nafarroako Gobernuaren edo toki erakundeen dirulaguntzak eta laguntzak jaso ditzakete, animaliak babesteko eta defendatzeko egiten dituzten jardueretarako, bereziki lankidetzaren hitzarmenen ondorioz egiten dituztenetarako.
- Agintaritza agenteen lankidetzaren eta laguntza jaso dezakete administrazioarekin egindako akordioaren ondoriozko kudeaketetan.
- Nafarroako Gobernuaren departamentuei eta toki erakundeei eska diezaiekete ikuskapenak egin ditzatela irregulartasun zantzuak dauden kasu zehatzetan.

2.2. Erakunde laguntzaileztat aitortzearen ondoriozko betebeharrak:

- Elkarleen eta erakunde laguntzaileen erregistroan jasota egon behar diren datuak eguneratuta izatea.
- Aktiboki parte hartzea animalien babesa eta animalien edukitze arduratsua sustatzeko prestakuntza eta dibulgazio programetan.
- Abandonuaren aurka borrokatzeko programetan eta harrera egiteko eta animalien adopzioa sustatzeko programetan parte hartzea, horiek proposatzea eta garatzea.
- Abandonatutako animaliak edo harrera programetan daudenak biltzen, hartzen eta mantentzen laguntzea, lagun egiteko animalien zentro gisa baimendutako harrera

zentroan aldi baterako ostatu emanez, halakorik badute. Hala badagokio, udalekin lankidetzan aritzea katu kolonien kudeaketan.

- Egindako jardueren urteko memoria aurkeztea animalien ongizatearen arloan eskumena duen organoari, kasuan kasuko urte naturalaren hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen.
- Egiten dituzten jardueren buruzko txostenak ematea administrazioari, haiek hala eskatzen dizkietenean.
- Animalien ongizatearen arloan eskumena duen organoari kontuak ematea.
- Agintaritzak eskudunari jakinaraztea bere eskumenen erabilerari eragin diezaiokeen edozein gertaera, bereziki animalien ongizatearen arloko zehapen ahalaren erabilerari eragin diezaiokeena.
- 19/2019 Foru Legetik eta ordenamendu juridikoaren gainerako arauetatik eratortzen diren gainerako betebeharrak.

3.- NOLA INSKRIBATZEN DA ELKARTE BAT?

3.1. Baldintzak.

A) Lehen atala: Atal honetan izena eman nahi duten erakundeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Legez eratuta eta Nafarroako Elkarteen Erregistroan erregistratuta egotea.
- Helburu nagusia animalien defentsa eta babesa izatea.
- Nafarroan animalien babesa eta defentsa sustatzeko jarduerak egitea, besteak beste.
- Helburuak betetzen direla bermatzeko giza baliabide eta baliabide material nahikoak izatea, bai eta antolamendu egokia ere.

B) Bigarren atala. - Erakundeak Bigarren atalean inskriba daitezke, baldin eta aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzeaz gain honako hauek ere betetzen badituzte:

- Benetan funtzionamenduan egotea eta Nafarroan animalien defentsaren eta babesaren aldeko jarduerak egin izana, gutxienez eskaera aurkeztu aurre-aurreko urtean, etenaldirik gabe. Animaliak hartzeko zentro baimendu eta erregistratu bat eduki dezakete, edo hitzarmen bat sinatuta izan, harrera zentro baten erakunde titularrekin.
- 78. artikuluan araututako Arau-hausleen Erregistroan ez agertzea, honako aurrekari hauekin: animaliekin lotutako jardueretan aritzeko aldi baterako desgaitasuna edo animaliak edukitzeko debekua, zehapen administratibo edo penal irmoaren ondorioz. Betebehar hori eska dakieke erakundeari zein haren gobernu edo zuzendaritza organoak osatzen dituzten pertsonen.
- Beren forma juridikoari dagozkion betebeharrak betetzea eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

3.2. Eskaera

Inskrizpioa alderdi batek eskatuta hasten da beti, fitxan ageri den dokumentazioa aurkeztuta.

Animaliak babesteko eta defendatzeko elkarteek eska dezakete, eskaera bakar batean, elkartearen erregistroko Lehen atalean inskribatzeko, eta erakunde laguntzailezat aitortzeko, horrek ekarriko baitu Bigarren atalean sartzea.

3.3. Aldi baterako etetea eta behin betiko baja ematea erregistroan

a) Elkartearen eta erakunde laguntzaileen erregistroan aldi baterako etetea eta/edo erakunde laguntzailezat aitortzen duen titulua aldi baterako kentzea. Kausak:

1. 94/2022 Foru Dekretuak erakunde laguntzaileentzat ezartzen dituen betebeharrak ez betetzea. Etenaldia 6 hilabeterako izanen da, eta erakundeak epe horretan zuzendu beharko ditu betebeharrak horiek.
2. Eskatzen zaizkion datuak faltsutzea edo ezkutatzea. Etenaldia urtebetekoa izanen da, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita.

Animalien ongizatearen arloan eskumena duen organoak ebatziko du erakunde laguntzailearen izaera aldi baterako etetea edo aldi baterako kentzea, interesdunari entzun ondoren.

b) Elkartearen eta erakunde laguntzaileen erregistroan **behin betiko baja** ematea, bi ataletan edo bietako batean. Kausak:

1. Erakundeak berak eskatzea
2. Erakundea desagitea
3. Aldi baterako etenaldia erabaki eta 6 hilabeteko epean betebeharrak ez betetzea
4. Eskatzen zaizkion datuak behin eta berriz faltsutzea edo ezkutatzea
5. Elkarre edo erakunde laguntzaile izateko baldintzak ez dituela betetzen egiaztatzea

Animalien ongizatearen arloan eskumena duen organoak ebatziko du erregistroan behin betiko baja ematea edo erakunde laguntzailearen izaera kentzea, ukitutako atala edo atalak adierazita.